


Teknologia, hizkuntzaren bitartez

Elhuyar eta Euskal Herriko Unibertsitateko IXA taldearen arteko elkarlanaren ondorioa izan da Eleka, ingeniari-tza linguistikoa lantzen duen enpresa



Xuxen enpresetara eramaten ari dira eta beste aplikazio batzuetara garatzen

Ez da denbora askorik igaro, Eusko Jaurlaritzak EHUko informatika Fakultateko IXA taldea errendimendu handiko talde izendatu zuenetik. Merezitako izendapena, zalantzarik gabe, talde honen lanak hainbat fruitu eman baitizkio euskarari, informatika alorrean, noski.

15 bat urteko ibilbidean, hizkuntza-teknologiaren esparruan oinarritzeko ikerketa egiten jardun du IXAk, oinarritzeko baliabide eta tresnak hartu, euskarengan inguruan bildu, eta ingeniari-tza linguistikorengatik bidez lantzeko. Azken helburua tresna eta baliabide horiek aplikazio baten erabiltzea da, eta horrela sortu zuen IXAk, egun, bere produkturik ezagunena dena: Xuxen, Word programa informatikoan txertatutako euskarazko zuzentzaile ortografikoa. Baina ez da hau EHUko lan talde honek behar dokumentalei eta linguistikoari aurre egiteko teknologiei lotuta garatu duen irtenbide bakarra. Lematizazioan oinarritutako interneteko bilatzaileak edota lexicografian hasi eta telefono mugikorren sektorerako doazen tresna linguistikoa bezalako hainbat produktu landu ditu azken urteotan.

Lan eskergaren ondorioa izan zen, beraz, IXA taldeak Unibertsitateak antolatutako lehiaketa baten lortutako bigarren saria. Honi esker, aukera izan zuen Diputaziotik aholkularitza zerbitzua jasotzeko, enpresa proiektu bat martxan jartzeko. Proiektua abian jartzeko garaian, Elhuyarrekin izandako harreman batzuen ondorioz erabaki zuten, Elhuyar Fundazioak ere proiektu horretan parte har zezan.

Beraz, IXA taldearen lan zorrotz eta eraginkorrari hizkuntzaren esparruan ia hogeita hamar urte zeramatzan enpresa

baten esperientzia gehitu zitzaion. Hogeita hamar urte horietan Euskal Herriko hizkuntzalaritzaren arloan enpresa aitzindaria izan da Elhuyar. Batez ere hiztegi eleantzak eta terminologikoak argitaratzen jardun duen enpresak aholkularitza linguistikorako zerbitzuak eskaini eta CD-ROM zein Internet formatuetan argitaratu ditu produktuak, besteak beste.

Horrela, talde sendo batekin gauzatu zen IXA taldeak martxan jarritako proiektua. Elhuyarrekin elkarlanean sortutako enpresa horretan lau pertsona daude egun: IXA taldean egondako hiru kide, eta Josu Baliña, Elhuyar Fundazioko langile ohia.

Ikerketak aplikatu

Finean, Elekak IXAk landutako oinarritzeko teknologia erabili, enpresetan irtenbideak eskaini, eta aplikazioak garatu egiten digu, Josuk aditzaera eman digunez: «Guk gehienbat egiten duguna da enpresa hauek bisitatu, eta, enpresek izan ditzaketen beharren arabera, irtenbideak aplikatzea. Hau da, oinarri horretatik abiatzea, baina teknologia aplikatuz». Zentzu berberean, Elekak ikerketa proiektuak ere egiten ditu; ikerketa aplikatuak aldatzeko proiektu jakinak, alegia. Esaterako, Josu Baliñak jakinarazi digunez, orain, enpresetara eramaten ari dira Xuxen, eta beste aplikazio batzuetarako garatzen ari dira, Office programarako, esaterako. Bestalde, hiztegiak ere sartzen dituzte webguneetan. «Oinarritzeko ikerketatik atera, eta ikerketa hori merkatuan edo beharretan behintzat aplikatzeko asmoz lan egiten dugu», gaineratu du Josuk.

Ez dira gutxi, jada, irailetik martxan den Eleka enpresak aurrera eramandako lanak eta gerora begira aurrikusita dituen egitasmoak. Esaterako, BBKren webgunean, euskara-gaztelania hiztegi bat sartu dute, eta, esan bezala, euskarazko zuzentzaile ortografikoa lantzen ari dira Officerako. Bestalde, euskara-frantsesa hiztegi bat barneratuko dute Worden epe laburrera, «bertan idazteko duen

ELHUYAR

••• Eleka enpresa aurkeztu zuteneko argazkia.



PLOY FOTOGRAFOS

Eleka enpresako lau kideak.

edonork erabil dezan». Izan ere, Josu Baliñak esandakoaren arabera, Elekako kideek multilingue bezala definitzen omen dute beraien enpresa; izan ere, zerbitzu eleanitzak eskaintzen ditu beronek. «Guk ez dugu soilik euskararekin lan egiten. Daukagun abantaila da euskararen teknologia guztia daukagula, IXAk landu duelako; eta, horrez gain, beste hizkuntza batzuetakoak ere baditugu: gaztelaniakoa, ingelesekoa, frantsesekkoa... Orain egiten ari garen proiektuak hizkuntza horietan mugitzen dira».

Elhuyarreko partaide ohiak adierazi digunez, Elekak ikerketa-proiektuetan ere parte hartzen du beste hizkuntza gutxiuekin; esaterako, galiziera edo katalanarekin. «Beraz, ingeniari-tza linguistikoren alorra era irekiago batean planteatzen dugu guk».

Eleka Indian eta Berlinen

Eleka atzerrian izan da, jada, enpresa aurkeztan. Besteak beste, Indian egon da, Bangko-

Zerbitzu eleanitzak eskaintzen ditu Eleka enpresak

ken. Josu Baliñaren esanetan, «bertan hizkuntza-teknologiekin berebiziko garrantzia dute, hizkuntza gutxiak asko eta asko direlako».

Bestalde, Berlinen Hizkuntza Teknologien Nazioarteko Kongresua izan zen, Europa mailan garrantzitsuena dena, eta bertan egin zuen Josu Baliña berak enpresaren aurkezpena.

Egun, Eleka enpresaren ekintza-arloak asko dira. Alde batek, teknologia linguistikorako aholkularitza eskaintzeaz arduratzen da, kudeaketa eleanitzetan zerbitzu hau eskaintzeaz gain sistema horietan teknologia linguistikoko berriak aplikatuz; bestetik, plug-in-ak ere garatzen ditu, Word eta antzeko aplikazioetan integra daitezkeen aplikazio txikiak hain zuten.

Explorer eta Windows bezalako aplikazioetarako osatzen dituzte aipatutako tresnak.

Aplikazio desberdinentzako testu-zuzentzaileak edo zuzentzaile ortografikoak ere lantzen ditu Elekak eta berauek domeinuetara, terminologietara eta abarretara egokitzeak aukera ematen du. Bestalde, dokumentuetan bilaketak egiteko eta kudeatzeko sistemen lematizatzeko tresnak aplikatzen ditu, lexikografian laguntzeko tresna egokiak ere baditu eta oso erabilgarria gerta daiteke datubase terminologikoak sortzeko besteak beste. Internetetik informazio zehatz bat erauzteko baliabideak ere aurkeztan ditu Elekak eta aztertu beharreko dokumentuak oso handiak direnean berriz, oinarritzko zatiak laburtzeko gaitasuna ere azaltzen du enpresa berri honek, egin beharreko lana murriztagoa izan dadin. Azkenik, itzul-tzaileei laguntzeko tresnak eskaintzen ditu Elekak eta Corpusaren analisia egiteaz gain testu handietan bilaketak egiterako aproposak diren indexazio automatikoez ere arduratzen da.

Miramongo Parke Teknologikoan du egoitza sortu berri den enpresa honek

testuak gramatikalki zuzentzea, itzulpen automatikoa...

Izan ere, «informazioa kudeatzen duen edozein enpresa edo erakunderentzat izan daiteke baliagarria Elekak egiten duen lana», Josu Baliñak baieztatu digunez. Bere egoitza Miramongo Parke Teknologikoan duen enpresa honek aipaturiko hizkuntza-teknologian eskaintzen dituen irtenbideen aniztasunak bezero mota desberdinak izatea ondorioztatzen du: enpresak hitza zutabe duten dokumentuen kudeaketa-sistemak garatzen ditu argitaletxeentzat; egunkari-entzako edota bestelako enpresentzako berriz, bereziki ortografia eta sintaxia zuzentzeko aplikazioak sortzen ere badihar-

du Elhuyarrek eta IXAk sortu berri duten enpresa honek.

Josu Baliñaren ustetan, ingeniari-tza linguistikoren sektorea berria da guztiz, batez ere, Euskal Herrian. «Orain arte, IXA taldea eta unibertsitate mailan bakarrik egon da; baina, sektore estratagiko bezala berria den arren, garrantzi handia dauka, eta indar handia edukiko du etorkizunean. Europako deialdietan eta Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko zientzia eta teknologia planetan alor estratagiko bezala hartzen dute ingeniari-tza linguistikoa. Etorkizun handia daukan sektore hasiberria da. Pentsa, laster, gero eta arruntagoa bilakatu da hizkuntza naturalaren bidez tresnekin komunikatzeko aukera, robotikan eta informatikan oro har».

Hizkuntza eta teknologia uzartuko dituen etorkizun baten aurrean gaude, beraz, eta, ez izan zalantzarik, gerora begira ere, Elekak zeresan handia izango duela hizkuntza eta teknologiaren alorrean.

Elekaren ekintza-arlo nagusiak

- Teknologia linguistikorako aholkularitza
- Plug-in-ak garatzea
- Testu-zuzentzaileak
- Lematizatzeta
- Lexikografian laguntzeko tresnak
- Web erauzketa
- Laburpenak egiteko tresnak
- Itzul-tzaileei laguntzeko tresnak
- Corpusaren analisia eta indexazio automatikoa

Etorkizuneko garapena

Elekako arduradunek azaldu digutenez, bezeroei eskaintzen dizkieten teknologiez gain, I+G+B arlo berezia ere badu enpresa honek. Etorkizuneko garapenaren ildotik, eremu desberdinak ikertzen dituzte esparru honen barnean: Euskara ikasteko metodo elkarreragilea, multimedia-katalogazioa eta bilaketa, ahotsaren arloan aplikatutako hizkuntza naturala,

internet - alokairuak - ikastaroak - internet - alokairuak - ikastaroak

muno@
informatika

www.munoa.org

Ipar kalea 16, behea
20800 Zarautz
Tfnoa 943 834153

internet - alokairuak - ikastaroak - internet - alokairuak - ikastaroak